



ZESTOAKO UDALA

AKTA

2018ko urriaren 25ean Udal Batzarrak buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Alkatea eta gainontzeko hamar korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dituzte:

1.- 2018ko irailaren 27ko udal batzarreko akta onartzea.

2.- 2019ko Ordenantza Fiskalak

Ogasun Batzorde Informatiboak Udal Zergen eta Tasen Ordenantza Fiskal Arautzaileen tarifak aldatzeari buruz eginiko proposamenak akordio bezala onartzea, eranskinen jasotzen den moduan, 2019. urteko urtarrilaren 1etik hasita indarrean sar daitezzen.

Aurreko puntuan azaldu diren akordio hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan jendaurrean jartzea 30 lanegunetan zehar, sor daitezkeen zuzenketa edo erreklamazioak egin ahal izateko.

Hartutako erabakiak eta Ordenantza aldaketak, zein bere eranskinak, behin betikoak izango dira beste akordio baten beharrik gabe, jendaurreko legezko epea iragan ondoren inolako zuzenketa edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz.

3.- 2018ko Aurrekontu Aldaketa.

Indarrean dagoen 2018ko Udal Aurrekontuaren barnean, kredituak aldatzeko 2. espedientea onartzea, jarraian zehazten den laburpenaren arabera:

Erabaki hau jendaurrean jartzea, [2018-KALD-000003-00](#) kreditu gehigarrien espedienteari dagokionean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik kontaktzen hasita, hamabost eguneko epean, erreklamazioak aurkez ahal daitezzen; horrelakorik aurkeztuko ez balitz, akordio hau behin betirako onartutzat emango dela zehaztuz, erabaki gehigarririk gabe.

4.- Udaleko plantila organikoa eta lanpostuen zerrendaren aldaketa.

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten bederatzi korporakideetatik aldeko zazpi botoekin eta bi abstentzioekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

LEHENA.- Indarrean dagoen 2018ko Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda aldatzea ondoren jasotzen den moduan:

- Ingurumen Teknikariaren lanpostu bat sortzea.
- Gizarte Zerbitzutako Administrari Laguntzaile lanpostu bat sortzea.



ZESTOAKO UDALA

BIGARRENA.- Erabaki hau jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, hamabost eguneko epean, erreklamazioak aurkez ahal daitezen; horrelakorik aurkeztuko ez balitz, akordio hau behin betirako onartutzat emango dela zehaztuz, erabaki gehigarririk gabe.

5.-Erregu eta galderak.- Ez da egon

Zestoan, 2018ko azaroaren 23an

IDAZKARIA,

O.e.
ALKATEAK,